

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5913

AGINDUA, 2021eko irailaren 1ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación UNED-Bergara izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.

2021eko uztailaren 29an, eskabide bat jaso zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación UNED-Bergara izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Aldaketa hori egin zen patronatuaren osaera eta erabakiak hartzeko quorumak eta gehiengoak egokitzeko, estatutuak aldatzeko eta fundazioa desegiteko prozedurak moldatzeko, erakunde laguntzaileei eta babesleei buruzko artikulua txertatzeko, eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko, oro har.

Aldaketa horiek fundazioaren patronatuak erabaki zituen, 2020ko otsailaren 26ko erabakiaren bidez (erabaki horrek, gainera, 2016ko abenduaren 22ko bilkuran adostutako aldaketak berresten zituen), eta 2021eko martxoaren 18ko erabakiaren bidez. Geroago publiko egin ziren, Donostian, 2021eko uztailaren 15ean, Diego-María Granados de Asensio notarioaren aurrean, bere lankide José Carlos Arnedo Ruiz jaunaren ordezkariaren eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 1445). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Aipatutako agiri horien bidez aldatu egiten dira estatutuen 1. artikulua (izena), 8. artikulua (patronatuaren osaera), 13. artikulua (quoruma eta gehiengoak), 25. artikulua (estatutuen aldaketa) eta 26. artikulua (desegitea). Gainera, 28. eta 29. artikulua gehitzen dira, erakunde laguntzaileei eta babesleei buruzkoak, hurrenez hurren.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau ebatzea, agindu baten bidez, bat etorri xedapen hauekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari buruzko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Fundación UNED-Bergara izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa, agindu honen datarekin, 2021eko

2021eko azaroaren 22a, astelehena

uztailaren 15ean Diego-María Granados de Asensio notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1445) egiletsitako eskritura publikoan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 1a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.